

Herrera

Larraitz Garmendia (tfnoa.: 943-391267)

herrera-Altzako Helduentzako Hezkuntza Iraunkorra ikastetxeak datoren ikasturterako aurrematrikula irekia du jada. Ekaina bitartean izena ematera joan daiteke goizetan 11.00etatik 13.00etara eta arratsaldetan 16.00etatik 18.00etara.

**D.B.Hren
baliokidea**

Herrerako ikastetxe hau duela urte batzuk jarri zen martxan eta harrez gero, urteroko gai berriak prestatzen ditu. Aurten ere ikasgai berriak topa ditzakegu, hauen artean azpimarra daitezke helduen heziketan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin baliokidea den Eskola Graduatua. Baina hezkuntzan izan diren berrikuntzen ondorioz, Bigarren Mailako Hezkuntza ezarriko da mota honetako ikastetxeetan 1998-1999 ikastur-

**Bigarren
Mailako
Hezkuntza
ezarriko da
1998-1999
ikasturtean**

Helduentzako ikastetxea

tean. Horrezaz gain, aipatze-koak dira 25 urtetik gorakoentzat dagoen unibertsitaterako sarbidea eta urtean zehar ikastaro ezberdinetan parte hartzeko duen eskaintza: aipu eskulanak, marrazkia edo informatika. Dena den, honen guztiaren gainean oraindik zalantzak edukiz gero, Herrera-Altzako helduentzako ikastetxe honek San Luis plazan duen egoitzara joan daiteke edo 943-390376 telefonora deitu.



Helduentzako ikastetxe honetan aritzeko, ekainean eman daiteke izena.

943 404070.

Aiete

Ekintza ugari udarako

Ainhua Torres (tfnoa.: 943-467768)

asteburu honetan hasiko da uda Etxadi Kirol eta Kultur Elkartean. Igerilekuak eta eguzkia hartzeko eremuak irekiko dira eta mota askotako ikastaroak antolatuko dira.

Ikastaroetan izena emateko epea aurreko astean ireki zen eta bulegoak 16.00etatik 20.00ak bitartean irekita egongo dira egunero. Aurten tenisa, igeriketa, margoketa eta marrazki ikastaroak antolatu dira. Euskarazko eta gaz-

telerazko orduak egongo dira haur zein helduentzako. Hala ere, euskaraz emango diren ikastaroetan eskakizuna ez da onartua izango matrikula ordaindu arte. Txanda bat baino gehiago jarri dira: ekainaren 29tik uztailaren 10era; uztailaren 13tik 24ra; uztailaren 27tik abuztuaren 7ra eta abuztuaren 17tik 28ra.

**Sarrerarako
abonoak**

Edonork parte har dezake. Hala ere, bazkide ez direnen-

tzat elkartera sartzeko abonoak sortu dituzte: banakako denboraldi abonoa, uda osorako 10 sarrera; hilabetekoa (uztaila eta abuzturako). Eskoletako egutegira egokituz eta mantenuaren kostuak murriztu nahian, ekainaren 15tik 19ra arte eguzkia hartzeko eremua irekiko da bakarrik. Igerilekuak 20an zabalduko dira eta denboraldia festa bat ospatuz hasiko da ofizialki.

Azkenik esan, Euskal dantza taldea arituko dela bihar 18.00etan elkartean.

OIHALDENDA

El telar

Alfonso VIII, 8
Tfnoa.: (943) 42 42 10

1903ean sortua

Casa de Labores

Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak

Elkano, 5 Tfnoa: (943) 420205 Donostia

Odontologia Klinika

Dr. Beobide

Ametzagafia 49
Tfnoa.: (943) 276227

Medikua - Odontologia